

DISKOTEKA BATEN BIDEZ ENERGIA SORTZEA

Lokal bat prestatuko dugu ondoren diskoteka bat sortzeko. Jendea dantzatzera joateko tokia izateaz gain, beste gauza garrantzitsu eta gaur egun beharrezkoa den baterako balioko du, hau da, jendeak dantzatzean energia elektrikoa sortuko du berato lurra zapalduz.

Lortutako energia hori, gailu elektronikoak kargatzeko erabiliko da (bateria). Bestalde, diskotean dantzatzeagatik lurrian jasotzen den energiak diskotekarentzako behar den energiaren %60 ematen du.

Diskotekara bizikletaz, oinez edo garraio publikoaren bidez joanez gero, 10 €-ko deskontua egiten diegu (frogatuz gero).

Idea nagusia hau da: dantzatzuz edo ibiltzen garenean sortzen dugun energia hori lurrian gordetzen da eta ondoren argindar bihurtzen da.

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Guk konpontzen dugun arazo nagusia energia kontsumo handia eta ingurumenarekiko erantzukizuna da. Diskotekek normalean asko kontsumitzen dute: musika, argiak, aire girotua, ... eta horrek kostu/faktura handiak eta kutsadura areagotzen ditu.

Gure diskotekan, berriz, jendeak dantzatzuz sortzen den energia aprobetxatzen dugu, hoonako gauza hauek eginez:

- Diskotekak behar duen energiaren %60 mugimenduaren bidez lortzen dugu, hau da, jendeak primeran pasatzen duen bitartean energia sortzen da.
- Sortutako energia, mugikorrek eta beste gailu elektronikoak kargatzeko erabiltzen da, eta horri esker bezeroek zerbitzu erosoak eta praktikoak edukiko dituzte.
- Jendeak garraio jasangarriak erabiltzen baditu (bizikleta, oinez, autobusa...), deskontua izateko aukera izango du, eta horrek ingurumenarekiko ohitura osasuntsuak bultzatzen ditu.

Azken finean, energia jasangarria ekarpen positibo bat egiten dion diskoteka izango da: festa egiteko leku bat, ingurumenari kalte gutxiago eginez.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Guk eskaintzen duguna ez da diskoteka bat soilik. Gure alde positiboak hauek dira:

- Dantzatzuz duzun heinean energia sortzen duzu, hori esperientzia berezia eta berritzailea da. Jende askok gustuko du "zerbait gehiago" ematen duten tokiak bisitatzea.

- Diskoteka ekologikoa:
 - Argindarraren zati handi bat jendeak sortzen du, eta horrekin batera ingurumenarekiko errespetuzko jarrera dugu. Gaur egun, askok baloratzen dute hori.
 - Garraio jasagarria erabiltzen dutenei deskontuak egiten dizkiegu. Azken finean, hor ere ikusten da ingurumenarekiko dugun errespetua.
 - Dantzaren bidez sortzen den energiarekin, mugikorra doan kargatzeko aukera eskaintzen dugu.
 - Ideia dibertigarria eta berria:
 - Mundu guztiak ez du aukera energia sortzen duen festa batera joateko, ez daudelako edonon. Horrek jende gehiago erakartzen du, esperientzia berria eta berezia delako.
 - Denek elkarrekin sortzen dute energia, eta horrek elkarlana sortzen dutenaren sentsazioa ematen du.
-

Gure balioa (bezeroarentzako onura nagusia):

Kualitatiboa:

Gure diskotekan bezeroek ez dituzte soilik musika eta argia kontsumituko, baizik eta esperientzia berezi baten parte izango dira, hau da, dantzatzeko duen bitartean energia sortzen duela jakiteak parte-hartze sentsazioa ematen du, eta horrek festa biziagoa eta motibagarriagoa bihurtzen du.

Gainera, jende askok baloratzen du ingurumenarekin koherente jokatu behar dugula, eta gure proiektuarekin barneko satisfakzioa eta “ondo egin du” sentsazioa sortzen du. Espazioaren diseinu modernoak, argien efektuek eta giro dinamikoak festa berezi, berritzaile eta eroso egingo du.

Azken batean, gure balio kualitatiboa da: jendeak esperientzia erakargarri eta esanguratsua biziko dutela, gainera ez da soilik gau pasa bat izango.

Lehiakideengandik bereizteko puntuak

- **Berritasuna:**
 - Gure diskotekak esperientzia berezia eskaintzen du: jendeak dantzatzeko energia sortzen du, eta horrek festa erakargarria bihurtzen du, ohiko diskoteketatik nabarmen bereiziz.
- **Prestazioak:**
 - Gure diskotekak ez du soilik dantzatzeko balio; bezeroek mugitzean sortzen duten energia hori mugikorrak, tabletak edo bestelako gailuak kargatzeko erabil daiteke. Horrela, festa gozatzeaz gain, beste zerbitzu jasagarri bat eskaintzen da.

- **Pertsonalizazioa / Parte-hartzea:**
 - Gure diskotekan bezeroak dira protagonista: bezeroek dantzatzean energia sortzen dute, eta horrek festa aktibo eta pertsonalizatua bihurtzen du.
- **Lana erraztea:**
 - Gure diskotekan energia sortzea oso erraza da: bezeroek dantzatu eta mugitzearekin nahikoa da, eta horrek festa atsegina bihurtzen du.
- **Diseinua / Esperientzia:**
 - Gure diskoteka toki moderno eta naturarekiko errespetuzkoa da, non argiak, musika eta giro ona elkartzen diren dantza eta giro polita sortzen duen.
- **Prezioa:**
 - Gure diskotekan deskontuak eskainiko dira bezeroek bizikleta, oinez edo garraio publikoa erabiliz etorri gero. Horrela, ez da bakarrik prezioa merkeagoa izango, baizik eta jasangarritasuna ere sustatuko da, eta bezeroek sari berezi edo original bat jasotzeko aukera izango dute.
- **Arriskuen murrizketa:**
 - Energia sortzeko eta jasangarritasunaren kontzeptua erabiliz, gaur egungo asteburuetako festa kontsumo handia murriztuko da. Bezeroek esperientzia dibertigarria eta ingurumenarekiko arduratsu bizi ahal izango dute.